



Ondarroako Udala

## Ondarroako Udaleko Ingurumen batzordea Akta, 2012ko urtarrilaren 19koa

Bertaratutakoak: Oier Espilla (batzordeburua), Aitor Maruri, Mari Kruz Lekunberri, Ibai Muñiz, Irene Zaton, Mari Tere Kaltzakorta, Luis Kazalis

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – Gabonetako argiak eta kaleko argiteria

- Kaleko argiterian Mankomunazgoak kontsumo baxuko argiak ipini ditu ia herri osoan. Ipini diren bonbillak LED dira batzuk, eta indukziozkoak gehienak (LEDak garestiagoak direlako).
- Alde Zaharrean ez da bonbillarik aldatu. Bertan fluxu erregulatzailerak ipintzea erabakitzen da. Horretarako dirulaguntzak ere eskatuko dira. Aurten %32 inguruko laguntza egongo ei da. Dirulaguntzetara urtarrilaren 26rako aurkeztu behar gara.
- Alde Zaharrean erregulatzailerak ipinita, datorren urtean gabonetako argiak 12etan amatatu ahal izango ditugu (argi hauek bertan ipintzen baditugu).
- Gabonetako argiak non entxufatu ditugun ikusita, zenbat gastatu dugun kalkulatu du Gener enpresak.
- Zatoztekin eduki genuen batzarraren berri galdetzen da: udaleko ordezkariak eta Zatoztekoak batu ziren. Dendarien elkarteak argiak gabonak baino bi aste aurretik piztea eskatu zuen. Azkenean hirigunekoak astebete lehenago piztea erabaki zen. Besteak Santomas egunerako piztu ziren, batzordean erabaki zen modura.

3 – Txakurren kakak:

- Udalbarriak aldizkarian kakak jasotzen ez dituenari ipini ahal zaizkion isunen berri eman da.
- Lekeition egiten dena aipatu da. Ordu biko rondak egiten dira, udaltzainen eta txakurtegiko arduradunen artean. Txakurrak lotuta dauden, arriskutsuek paperik baduten, kakak jasotzen diren... begiratzen dute. Arazoa ez ei du konpontzen, baina kontrolatzen laguntzen ei du.
- Udaltzainekin eta txakurtegiekin batzekotan geratu gara.

4 – Herriko dendetan erostearen aldeko kanpaina egin zen Udalbarriaken. Halako gehiago egin behar dira.

5 – Aurreko batzarretan egin diren galdera batzuei erantzuna:

- Txori Errekan itzalita dagoen farola auzokoen jabetzakoa da, ez udalarena.
- Txomin Agirre Ikastolako patioan ziburoak ipiniko dira.
- Kafe Atzeko arbolak Astigarrak dira, eta ur gazia ondo jasaten ei dute. Zalantza sortu da, ea zuhaitz horiek ziren lekuz kanpo zeudenak, ala errekaen beste aldeko pasealekukoak.
- Portu Zuzendaritzari idatzi bat bidal diezaiokegu, ibaira begira dauden farolekin zer egin galdetzeko. Beste proposamen batzuk ere egin daitezke: euren jabetzakoak diren faroletan erregulatzailerak edo kontsumo gutxiko bonbillak ipintzeko, goiko aldea tapatzeko edota pizten ez dituzten farola zuriak kentzeko, inpakto bisual handia



## Ondarroako Udala

daukatelako.

- Zubi Zahar ikastolako zuhaitzak inauteko arazorik ez dago. Momentua heltzen denean gogorarazi.
- Errekako ura Eusko Jaurlaritzak aztertzen du.

6 – 2012ko aurrekontuak aurkeztu dira. Daukagun diruaren kontzeptuak alda daitezke, ekintza batekoak beste batean gastatu, adibidez.

- Hirigintzako teknikari bati proposamena egingo zaio geure teknikaria izateko, eta ordu batzuk sartzeko geure arloan.

## 7 – Zuhaitz eguna

- Egun horretan zer egin behar den eztabaidatu da:
  - habiak ipini daitezkeela, gero arbolak ez direlako zaintzen.
    - Habiak lehen Aldundian eskatzen ziren.
  - Egun hau Kamiñazpiko parkeko zuhaixka toxikoekin lotu daiteke: haiek kendu eta berriak ipini.
  - Udaleko lurri buruz berba egin da:
    - Atxazpin lurrak ditu udalak. Hura deskontaminatzea garestia da, eta merenderorik ipintzea ez da komeni, lurrek ez dutelako stabilitaterik. Inguruetan arbolak landatu daitezkeela proposatu da.
  - Gorozikako bidean eta Gardotza atzean ere baditu lekuak. Gorozikakoa egokia da jartzeko lekuak-eta ipintzeko, baina inguruan pinu asko (eguzkiak jotzen du bertan?).
  - Artapuntan udalak lurrak ditu, eta albokoak merke eros daitezke. Lurrak berreskuratzen joateko aukera dago.
    - Lurrak eskuratzeko IHOBek dirulaguntzak zituen.
  - Zuhaitz astea egin daiteke: egun batean umeekin habiak ipini, beste batean udaleko lurretan zuhaitzak landatu (baina gero hauetaz zein arduratuko den zehaztu behar da, eskoletakoentzako Gorozika-eta urruti daudelako jarraikortasunez zaindu ahal izateko), Felix udaleko teknikariak artadie eta boilurrei buruzko hitzaldia eman lezake.
    - Egun hau eta erreka eguna egiteko lan talde bat deitzea erabaki da.
- Arbolei ipintzeko plakak egin ziren (bakoitzaren izenagaz), gero ez ziren ipini. Non dauden galdetuko da.
- Artapuntan basaranak daude, baina inguruan dituzten lurrak kendu behar dira.

## 8 – Bizikleta aparkalekuak:

- Aparkaleku batzuk proposatu dira: Ibaiondoko etxeetako tuneletan, Mojetako etxeen aterpean, Iperkaleko igogailuaren aterpean.
- Eskoletara jende gutxi joaten da bizikletan
- Iñaki Deunan zaila dela bizikletan ibiltzea (norabide bakarra). Hor espaloia eta errepidea altura berdinean ipintzea irtenbide bat izan daiteke.
- Bizikletan ibiltzen direnekin batzea komenigarria da: aparkalekuak non ipini galdetzeko eta bizikletan ibiltzeko zeintzuk oztupo dituzten galdetzeko. Deialdia egingo da.

## 9 – ARTIBAI LIC-IKL



## Ondarroako Udala

- Artibai Interes Komunitarioko Leku izendatu zen, eta gero Babes Bereziko Gune izendatzeko prozesua ipini zen martxan. Prozesu horretan eskualdeko alderdi, talde eta norbanako askok parte hartu zuten. Artibai arroko erreka txikiak ere babestea onartu zen. Baina Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldiko Aldundiekin berba eginda atzera bota du, eta Artibai ibaia babestuko da bakarrik.
- Ez dakigu zein ondorio edukiko dituen honek. Ziurrena aukera bat galtzea izango da, Europatik datozen diruak jasotzeko. Informazio gehiago eskatu dezakegu, eta Jaurlaritzako teknikariak etortzea azalpenak ematera.
- Horrekin ados ez gaudela adierazteko gutun bat idaztea proposatu da.
- Amankomunazgoko Ingurumen batzordean berba egiten denaren arabera hartuko dugu erabakia hurrengo batzordean. Batzordeak otsailaren 7an eta martxoaren 20an izango dira.
- Errenteria parean erreka ondoak berreskuratzen joan gaitezkeela esan da. Lur horiek Aldundiarenak dira eta jende askok soloak ipini ditu bertan.

### 10 – Eskola Agenda 21 udaletatik finantzatzeko proposamena

- Amankomunazgoak Eskola Agenda 21en koordinazioa ordaintzen ez badu, gastu hori udalak euren gain hartzea proposatzen da. Materiala prestatu eta udal foroak antolatzen lagundu.
- 8000 euro inguru izango lirateke, udalen artean banatuta (bakoitzak daukan eskola kopuruaren arabera). Dirulaguntzak ere badaude. Beste aurrekontu batzuk eskatu eta prezioa gitxitzen ahaleginduko gara.
- Lekeitioko udalekoekin berbetan egon gara, eta eurak ados daude. Markinakoekin datorren astean egongo gara.
- Egokia dela ikusi da, eta Ondarroako Udalak diru hori ipintzea onartu da.

### 11 – Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa.

- EHNE sindikatuaren eskutik nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaro bat antolatzeko aukera dago, debalde. Lekeition ematen ari dira, arrakasta handiz. Ondarroan soloak dituzten pertsona batzuei galdetu zaie, eta interesatu zaie.
- Aurten egitea agian zaila izango da, baina datorren urterako lortuko genuke.

### 12 – Eskualdeko garraio publikoa

- Txosten bat dago gai horren inguruan. Urte batzuk ditu baina oraindik gauza baliagarriak dauzka.
- Garraio publikoa hobetzeko aukerak aipatzen dira: Ondarroa-Markina-Lekeitio autobus zerbitzua edo Plazakolan geltokia, autobusez aldatzeko. Baina Pesak indemnizazioa eskatzen ei du, uste duelako bere zerbitzua (Ondarroa-Bilbo) kaltetua aterako dela, ondarrutarrok Lekeitiotik Bilbora doan autobusa hartuko dugulako.

### 13 – Udaleko agenda 21

- Duela urte batzuetako diagnostikoa eskuragarri dago.
- Gauza batzuk egin dira, beste batzuk ez.
- Zaila da orain jarraipena ematea, Udalak aurreko urteetan ez duelako ekintza fitxen jarraipenik egin.
- Batzuk errazak dira: udalean birziklatzea, adibidez.



## Ondarroako Udala

### 14 – Biomasa erregaia erabiltzeko aukera, udal instalazioetan

- Gasaren alternatiba lez, bertoko pinudietatik lortutako biomasarekin ibiliko diren kalderak ipintzea proposatu digu Biomusak enpresak. Eurek ipintzen dute kaldera, guk erregaia ordaintzen dugu bakarrik.
- Zaldupeko Udal Futbol Zelai berrian proba egin daiteke.
- Baso autoktonoen biomasa erabiltzea egokiagoa izango litzateke.
- Zeinek beteko ditu kalderak?
- Esperientzia hau martxan ipini duten beste udal batzuekin berba egingo da: Azkoitia...

### 15 – Kai logoa berreskuratzea

- Duela hiru legealdi, Ingurumen batzordeak logo bat zeukan, KAI, Kaiet Bengoetxeak egindakoa: Kalatxori bat zen, zamarrero jantzita. 2 metroko gurpildun KAI handi bat ere bazegoen, kontzientziazio kanpainak egiteko erabiltzen zena. 8 urtean gordeta egon ostean, apurtu egin ei zen, eta bota egin omen zuten.
- Logo hori berreskuratzea proposatzen da, batez ere umeei begira egin nahi diren kanpainetarako. Ondo ikusten da.

### 16 – Besterik

- Erreka zikin ei dator.
  - Gardotzan sanemendua egin barik dago. Zamarrekin eta be arazo asko edukitzen dituzte Berriatuan
  - Berriatuak araudi bat egin beharra dauka gai honen inguruan. Eurekin berba egin behar da.
  - Lekeitioko ur araztegiaren ur gazia ondo toleratzen duen kolonia biologikoa dago.
- Olio kontenedore bat gehiago ipintzeko aukera dago, orain arte ordaintzen dugun prezio berdinarekin. Horretaz gain, olio berziklatzeari buruzko kanpaina bat ere egingo dute.
  - Ondarroan eta Lekeition asko berziklatzen da olio.
  - Non ipini? Artabiden proposatu da, jende asko bizi delako.
- Zaldupen lurra behar dute solorako, eta futbol zelaitik kendu behar dutena eskatu dute.
- Eskola Agenda 21etik hitzaldi bat proposatu da Ondarroan otsaila eta maiatza artean egiteko, debalde eta herritar guztientzako, erosteko irizpide ekologikoei buruz.
  - Eurekin kontaktuan jarriko gara: Kontsumobide, Nicolak Alcorta kalea 2 (48003) Bilbo, 94 403 2220 [b-kontsumo.gelak@ej-gv.es](mailto:b-kontsumo.gelak@ej-gv.es)
- Herriko arbolak gutxiago podatu behar dira, zabor asko sortzen dugu podarekin.
- Erreterian egin behar zen Garbigunea zertan den galdetu da.
- Markinatik Ondarroara egin behar den saihebideari buruz berba egitea proposatu da.